

“ ABDÓN EUSKAL GAUZA GUZTIEN FAKTOTUMA IZAN ZEN MADRILEN ”

Euskarazko lehenengo komiki-albizkariaren eragilerik kartsuena izan zen Abdón González de Alaiza Azazeta (Musitu, 1876 – 1926). Hura hilagatik ere, bizian iraun du haren espirituak familiako suaren beroan eta, oraindik orain, haren oinordeek berri gehiago ikasi dutelarik, zazpi bazterretara zabaldu dute su hura. Amaia dugu lekuko.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Abdón González de Alaizaren oinorde zaitugu, askazi.

Bai, gure amamaren osaba izan zen Abdón. Urrun xamar gelditzen da, baina, aldi berean, oso etxekoa dugu. Hain da hori horrela, Musitun, gure etxean, plaka bat baitago fatxadan. 1933an jarri zuten, Abdón omendu zuten egunean. Horixe esaten du plakak, Abdón etxe honetan jaio eta hil zela. Alabaina, oraindik orain jakin dugunez, baliteke Abdón etxe honetan ez jaioa izatea, hor bertan dagoen kortatxoan baizik... Euzko Ikasle Batzak sinaturik dago plaka, eta egia da Abdón Musitun betiko etxean jaio eta hil zela, baina bizimodu osoa Madrilen egin eta gero itzuli zen sortetxera, oso gaixorik,

hiltzera. Etorri, bizpalau hilabete bertan egin, eta hil. Alde horretatik, oso itzulera dramatikoa izan zen.

Etxearen fatxadan ageri den plaka hori ez beste lekukotasunik bada zuen etxean? Hura ezagutu zutenen testigantzak, istorioak...

Gure amak, adibidez, bere amari aditutakoak dakizki. Oso gauza urrutikoak. Kasik oroitzapen zahar batzuen oihartzunak dira. Bestalde, ordea, badugu lehengusu bat, Jordi Quera, eta hark gehiago daki, edo istorio gehiago bildu ditu, bere amama Elvirari galdetuta. Elvira hori, González de Alaiza, Abdónen anaia Justoren alaba izan zen, eta Jordik kontatzen duenez,

amama Elvira oroitzen zen Abdón aldiro etortzen zela Musitura, liburuak ekartzen zituela, lauburuak ere bai, gau-arrantzan ibiltzen zela nor edo norekin, guardia zibilaren kontrako komentarioak egiten zituela... Horrelako kontuak. Beste inork ez daki besterik, nahiz osaba Luisek edo nire neba Josuk beren esperientziak ere badituzten fatxadan jarrita dagoen plaka horren kontura.

Zer esan nahi duzu?

Zer esperientzia?

Gure osaba Luisek kontatzen du gerra ondoan plaka fatxadatik kendu zutela, eta ezkutatu egin zuela Gasteizen, gurascen etxean. Etorri omen zen egun



Amaia Urrea González De Alaiza

MUSITU, 1970



Amaia Urrea González de Alaiza (Musitu, 1970). Abdónen hereniloba. Gaztetandik aditu zituen, familiaren gerizan, Musituko etxean jaio, Madrilen bizi eta, heriotzako orduan, gaixo handi, habiara itzuli zen birraitaitaren istorioa. Etxeko fatxadan ageri den idazkunak eta hilerriko hilarri bereziak ere horixe ziotsaten Amaiari, Abdón González de Alaiza Azazeta nor izan zela. Oraindik orain, haren biografia berrosatu dutelarik, erantzunik ez zuten hamai-ga galdera erantzun dizkio Amaiak bere buruari.

batean Gasteiztik, eta biharamunean, goizean goizik hartu lehenengo trena, Vasco-Navarro-a, eta Gasteizko etxera eraman zuela plaka. Kontatzen du Dato kalean barrena joan zela, plaka zaku batean sartuta, buru gainean zeramala. Brontzezkoa da, eta oso pisua. Hamabost edo hogeitaz urte egin zituela plaka horrek haien etxean Gasteizen. Gero, Franco hil eta gauzak pixka bat normaldu zirenean, plaka hartu, txukun-txukun leundu eta atzera lehengo lekuan jarri zuen gure neba Josuk, dotore-dotore. Istorioa, baina egiazkoa.

Euskarazko lehenengo komikia sortu zuen Abdónen: *Txistu*.

Horixe uste genuen guk, baina orain-tsu jakin dugu inork ez dakiela hori. Alegia, badakigu Abdón tartean zegoela, hura hil zenean horixe idatzi zuten-eta orduko *Argia* aldizkarian: *Txistu* argitaratzea asko atzeratu zela, besteak beste proiektuaren “eragile sutsuena” hil zelako. “Eragile sutsuen” hori Abdón izan zen, Madrilgo lagunak esan zuten.

Zer dela-eta bizi izan zen Abdón Madrilen, zer dela-eta egin zuen bizimodua han?

Musitu nekazari herria da, ez dago mendia besterik. Erdi Aroan toki garrantzizkoa izan omen zen, hala ere, Nafarroatik eta Errioxatik arabar Lautadara eta Espainiako Kantabriara joateko bidegurutzean zelako. Eta irin-errotek ere ospea eman zioten Musituri. Hortxe dira oraindik, adibidez, Igoroingo errota hondakinak, 1561eko errota!... Kontua da XIX. mendearen bukaeran, Abdón jaio zenean, 1876an, horrelakorik ez zegoela, eta bizimodua ez zegoela erraz. Gainera, zazpi seme-alaba izan ziren Abdónen etxean, anaia gehiena etxean geldituko zen, eta gainerakoek etxetik kanpora joan beharko zuten lanera. Uste dut horrela izango zela. Seguru dakigu, hala ere, Abdónen bi ahizpak, Juanita eta Elvira, Madrilen ari zirela lanean, zerbitzatzen, eta bi ahizpa zaharragoak Madrilen zeudela joan zela Abdón ere hara. Gazterik joan zela pentsatzen dugu, datu askorik ez badugu ere.

Zer datu dituzue, adibidez?

Bada, esate baterako, 1899an Madrilen zegoela dakigu, euskal orfeoaren inguruan ageri da-eta. Hori zierto dakigu. Handik lau urtera, berriz, Bilbo-

ko Athletic futbol taldearen Madrilgo sukurtsala sortzen ere parte hartu zuen. Oraingo Atletico Madrid ekipoa, alegia. Hori dokumentatua dago. 1902an futbol partida bat jokatu zuen Bizkaia taldeak Bartzelonaren kontra, Madrilen, eta hipodromotik irten eta Castellana hiribidean barrena zihoa-zela, Athleticen filiala sortzeko ideia izan zuten euskaldun batzuek. Tartean zegoen Abdón.

Txistu-ren sortzaileetakoa, futbolearen ere sartuta,...

Bai! 1903ko apirilaren 8an lehen Errege kopa eta Espainiako Txapelketa jokatu zituzten Athleticen eta Madrilgo Bilbotarrek irabazi zuten, eta horrek bihotz eman zien Madrilgo euskaldunei. Aurreko urteko ideia hartu, eta biharamunean bertan fundatu zuten Bilboko ekiporekin filiala. Zuzendari-tzakoa izan zen Abdón. Horrelaxe! Hil zenean, Manuel Irujo esan zuen, Madrilen egosten ziren euskal lan eta saltza guztietan buru-belarri sartuta ibili zela beti Abdón. Politikan, kulturean eta behar zen guztietan, euskaldunei laguntzen ibili zen beti.

Zer ibili zen politikan? Eusko Alderdi Jeltzalekoa izan zen?

Ez dakigu alderdian militatu zuen edo ez, baina EAJkoak ziren bere lagun asko eta asko. Abdóni berari dagokionez, haren lagunak idatzi zutelako dakigu, adibidez, 1909ko azaroaren 28an mitin abertzalea egin zela Madrilgo Lavapiés auzoan, Abdónen hautatu zuela toki hura, eta bi baserritar ere eraman zituela bertara, baina baserritar jantzita! Ramon Bikuñak kontatzen du Abdónen lan handia egin zuela garai hartako prentsa abertzalea Madrilen zabaltzen. *Aberri*, *Patria* eta *Gipuzkoarra* aipatzen ditu Bikuñak. Mitinak eta omenaldiak antolatzen zituela, arrantzaleen seme-alaba zurtzei edo Uztaritzeko seminarioari laguntzeko diru-biltzeak egin zituela... Ikaragarria izan behar zuen Abdónen, nonbait ere! Eta EAJkoa zen, ez zen, ez badakigu ere, jendea abertzaletu zuela ere esaten dute. Hor bada anekdota polit bat Abdónen izena dela eta ez dela...

Zer anekdota?

Roman Berriozabalek idatzita dakigu 1908ko urtarilaren lehenengoan ekitaldi berezi bat egin zela Gasteizko batzokian. Agintari abertzale ba-



ABDÓN, ATON

“Gregorio González de Alaiza eta Toribia Azazeta izan ziren Abdónen gurasoak. Zazpi seme-alaba izan zituzten: Akilino Domingo, Juana Paula, Elvira, Justo, Probo, Abdón eta Domiziano. Uztailaren 30ean jaio zen Abdón, santutegiari begiratu edo apaizari kasu egin, eta egun horretako santuetako baten izena jarri zioten: Abdón. Gero, abertzaletu ondoren, Arana Goiriren jarraitzaile zenez, euskaratu egin zuen: Aton”.

RAMÓN BIKUÑA

Lehenengo, dendari lana egin zuen Abdónek Madrilén. Eguzki Ateko moda saltegi batean. Gero, Alcalá kalean, Bilboko enpresa bateko ordezkari izan zen. Ramón Bikuña politikari jeltzalearen bidez Abdóni buruzko gauza asko jakin ditugu. Esaten zuen, urtero, kurtsoa hasten zenean, ikasleak eta pilotariak biltzen zituela bateko edo besteko lokalean. Eusko Ikaskuntzaren bultzatzaile nagusia izan zela Madrilén, eta Hogar Vasco-ren sortzaileetakoa 1923an. Euskarra eskolatan ere parte hartu zuela... Abdón beti afanean.

tek hitzaldia egin zuen, eta gobernadore zibilararen ordezkariak, han baitzegoen, oharrarazi egin zion. Kontua da iskanbila sortu zela, eta jendea berotu egin zela “Gora Euzkadi!”-ka, eta poliziak hizlari abertzalea atxilotu egin zuela eta, bihar-munean, baita abertzale gehiago ere. Orduan, protesta jo zuen jendeak, eta gutunak idatzi ere bai. Haietako bat, posta-txartela, Tarratón-ek sinatu zuela iruditu zitzaion poliziari; Madrilatik bidalia zen. Hasi da polizia Madrilén ere delako Tarratón horren bila, baina ez zen inon azaltzen. Jakina, ez zen Tarratón, Alaiza’tar Aton baizik. Gure Abdón!

Hara! Alaiza’tar Aton, Abdón González de Alaiza. Sabino Aranaren jarraitzaile zen horretan.

Bai, bada! Eta, gero, 1919an Eusko Ikaskuntza sortu zenean, eta Anjel Apraiz Madrilén zegoela baliatuz, erakunde berri horri buruzko lehen eskuko informazioa izan zuen Abdónek. Esaten dute, hala ere, inor ez zela Abdón bezainbeste saiatu Eusko Ikaskuntzaren alde Madrilén, bazkideak egiten, erakundearen berriak han zabaltzen... Gutun mordoxxa kontserbatzen dira, Abdónek Eusko Ikaskuntzari idatzitakoak.

Dena dela, oraindik oraintsu arte, Txistu sortzen ibili zelako zen ezagun Abdónen izena.

Bai. Horixe esaten zuten. Baina badakigu ez zela bera bakarrik ibili Txistu sortzen. “Eragile sutsuena” izan zela idatzi zuten, eta egia izango da, beste informaziorik ez dugu-eta gaur-gaurkoz. Orduko *Argia* aldizkarian idatzita dagoenez, Madrilén arkitektura ikasten ari ziren ikasleak ere tartean ibili ziren, baina ezin jakin. Abdónen izena besterik ez dakigu, eta, orain arte, Txistu-ren sortzailea Abdón izan zela esan dute batzuek eta besteek.

“**Hasi da polizia Madrilén ere delako Tarratón horren bila, baina ez zen inon azaltzen. Jakina, ez zen Tarratón, Alaiza’tar Aton baizik. Gure Abdón!”**

Komikiaren alerik ez zela gorde ere esan izan da, eta halaxe ageri izan da oraintsu arte han eta hemen. Haatik, denak gorde dira...

Bai. Publikatutako 16 aleak! Urte askoan inork ez du jakin aldizkaria inon bazegoela. Horixe esaten zuten denek, ez zela alerik kontserbatu. Orain dela bizpalau urte, ordea, Anartz Gorrotxategi –Arraia-Maeztuko alkatea–, eta Javier Díaz Noci irakaslea harremanetan jarri ziren, han eta hemen begiratu zuten, eta jabetu ziren Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean ale guztiak zi-

Azken hitza MUSITU

“Ramón Bikuñak 1933ko omenaldian esan zuen bezala esango nuke nik: ‘Hauxe da Alaizak bere begietan iltzatuta eduki zuen toki zoragarri eta parerik gabekoa, Madrilgo erbestealdian begi-ninietan iltzatuta eduki zuena. Toki hau ikusi eta orain hobeto ulertzen dugu Abdónek erbestetik ihes egiteko egin zuen mugimendu isila, bere auzo goxo eta baztertura etortzeko, jaio zen lurre-ra betiko atsedenera, exodo tragiko bezain bikaina eginez’. Horixe da Musitu”.



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

tuztela, digitalizatuta. Antonio Zavala-ren funtsetan agertu zen *Txistu*. Bilduma osoa!

Omenaldia aipatu duzu lehen. Zer omenaldi egin zitzaion Abdóni?

1933an, ekitaldi handi bat egin zen Musitun. Herri txikia da, baina 1933ko uztailaren 16an jende multzo handia bildu zen hemen, Abdón omentzeko asmotan. *Euzkadi* egunkariak egunaren kronika egin zuen, ia orrialde oso batekoa, eta han irakurri dugu nola izan zen egun hura. EAJren agintari ezagunak etorri ziren, Manuel Irujo, Xabier Landaburu, Doroteo Ziaurriz eta Ramon Bikuña. Meza izan zen lehenengo, eta, gero, hilarri berezia jarri zuten Abdónen hilobian, eta plaka etxeko fatxadetan. Hitzaldiak ere egin zituzten, eta txistulariak ere izan ziren. Oso egun berezia. Orduan esan zuen, bada, Irujok Abdón euskal gauza guztien faktotuma izan zela Madrilen.

Faktotuma?

Bai, Bikuñak esan zuen Abdón Madrilgo euskal gauza guztien “ardatz, giltza, sustatzaile eta animatzaile” izan zela. Ma-

drilera joaten ziren ikasleak orientatzen zituen, hango euskaldunak bata bestearekin harremanetan jartzen zituen, lanik ez zutenei lana bilatzen ziena. Hango euskaldunen errolda ere egin zuen Abdón, eta Madrilen lanean ari ziren neskameen eta dendarien arteko harremanak eta ezkontzak ere sustatu zituen. Kultura eta politika lanak, eta denetarik.

1926an hil zen Abdón, Musitun, bizi guztia Madrilen egin ondoren. Zuk, arestian, “itzulera dramatikoa” esan duzu.

Abdón hil zenean, Odon Apraizek ohar bat publikatu zuen egunkarian, esanez hil baino astebete lehenago Madrildik alde egin zuela Abdón, hilzorian etorri zela etxera. Omenaldiaren eguneko kronikan diote, berriz, inori ezer esan gabe alde egin zuela Madrildik. Madrildik irten eta Musitura etorri zela, eta bi hilabeteren buruan hil zela. Ez dakigu astebete lehenago etorri zen, edo bi hilabete lehenago, baina kontua da etxean hil nahi izan zuela, eta etxean hil zela. Madrilgo lagunei ezer esan gabe etorri zen, hilzorian... Dramatikoa iruditzen zait. zitekeela. ●